


Aireko trafikoak gora egin du berriro euskal aireportuetan

Aireportuetatik abiatutako pertsonak

Urte bakoitzeko abuztua. Mila




Iturria: AENA.

Abuztuan, pertsonen trafikoa % 43,3 gehitu zen aurreko urtearen aldean. Zehazki, abuztuan 641.322 bidaiariek parte hartu zuten, hau da, hilabete horretako serie osoko daturik altuena.

Eratutako enpresen kopurua jaitsi egin da

EAEen eraturako enpresak

Urte bakoitzeko urtarriletik uztaiera bitartean




Iturria: INE

2022ko lehen zazpi hilabeteetan, Euskadin eraturako enpresen kopurua %6,9 jaitsi zen, aurreko urteko aldi beraren aldean. Uz-kurdura hori gorabehera, eraturako 1894 sozietateak azken 10 urte-etako (1930) batez bestekoaren oso antzekoak dira.



Euskal merkataritzaren salmentak %4,9 gehitu ziren

Merkataritza indizea
Urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoa




Iturria: Eustat.

2022ko bigarren hiruhilekoan, merkataritzako salmentak %4,9 hazi ziren aurreko urtearen aldean. Aurtentortutako maila azken hamaiak urteetako altuena izan da. Gehikuntza bereziki esanguratsua izan zen handizkako merkataritzan (%7,8). Beste muturrean, ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa %9,7 murriztu zen.

KPIa abuztuan %10,3an kokatu zen EAEn

EAEko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Euskadiko KPIa bi hamarren jaitsi zen uztailaren aldean, eta %10,3koa izan zen. Hala ere, azpiko inflazioak goranzko joerarekin jarraitu zuen, %6,4ko erregistroarekin, bere mailarik altuena berretsiz eta prezioen igoera erosketa-saskiaren gainerakora eramanez.